



BAKEAREN EGUNA

AGIRIA

Madre de Dios Ikastetxeko Hezkuntza- Elkarteko kideok Bilboko auzo honetan bildu gara urtarrilaren 30ean, Bakearen eta Indarkeriarik Ezaren egunean. Izan ere, hiri hau da gure bizitokia eta ikasteko, gure jostalekua eta hezteko gunea. Hortaz, hemen elkartu gara gure euritakoak, Bakearen euritakoak lagun ditugula. Bakearen aterki hauek guztiak erakutsiz, gure arteko elkartasuna eta gizaki guztienganako begirunea, berezitasun eta ezberdintasunak aintzat harturik, aldarrikatu gura dugu.

- Jakin badakigu mundu honetan guda eta indarkeria gehiegi dagoela ...
- Ikusi dugu Europan XX. mendean inoiz izan diren gudarik gogorrenak gertatu direla, eta ez dugu nahi berriro horrelakorik gertatzerik ...
- Gure inguruan ikusten dugunarengatik eta eguneroko berriek erakusten digutenagatik, badakigu indarkeria edonon ageri zaigula gure hirietan, eskoletan eta sendi barruan ere bai ...

Hau guztia dela eta, **BAKEAREN ETA INDARKERIARIK EZAREN ESKOLA-EGUNEAN** hauxe aldarrikatu eta adierazi gura dugu:

- XXI. mendeko gizarteko ume eta gazteak gara; mundu honetan jendearen arteko elkartasuna eta herrialdeen arteko bakea izatea nahi dugu.
- Egunen baten mugek antzinako erreinuak bakarrik agertzea nahi dugu, kultura eta hizkuntza bat sortu zituzten erreinuak alegia, eta ez dugu gura gure neba-arrebak baztertzeko erabiltzerik.
- Egunen baten lurraren baliabideak herri guztiak garatzeko adinakoak izatea gura dugu; horrela, ez da boteretsuek ahulei ezarritako esplotaziorik izango; beraz, garapena eta kultura izango dira bakean murgilduta biziko diren herrien oinarri.
- Egunen baten gizaki guztiek tolerantziaz, begirunez eta abegi onez jokatzeko nahi dugu, muturreko jokabide sexistak alde batera utzirik.
- Egunen baten gure iritziak adierazterakoan sexuen arteko desberdintasuna eta munduko arrazak kontuan ez izatea gura dugu, benetan garrantzitsuena gizaki izatea baita.
- Egunen baten gure bihotzek bekaizkeria, susmo eta mesfidantza guztiak gainditzea gura dugu, gure ikastetxeetako jolas-orduetan borroka eta mehatxurik izan ez dadin.
- Egunen baten etxe guztietan helduek onberatasuna eta samurtasuna agertzea gura dugu, eta guk, txikienok eta gazteenok, begi garbiak eta bihotz sendoa.
- Egunen baten hiztegitik behin eta betiko *terrorismo*, *bortxaketa*, *droga-trafiko*, *esklabotza* eta beste hainbat hitz kendu behar izatea nahi dugu; horrela, erabiltzeko ohitura galdurik ez dute esanahirik izango.
- Egun eder bat heltzea nahi dugu: mendiek eta basoek, itsasoek eta arrainek, haizeak, landareek, animaliek eta gizakiek,, elkarren arteko orekan, araztasuna erakutsiko dute orduan.





EGUN EDER HORREKIN EGITEN DUGU AMETS ; HORIXE DA GURA DUGUNA,

BIZI-SENAK BEHAR DUGULA DIOSKULAKO;

GURE ESKU DAGO ...

ETA GERO ETA GEHIAGO GARA HONETAN USTE OSOA DUGUNOK

Aterkiekin eginiko ekimen honek amets eta itxaropen hauek guztiak agertzen ditu ...

HELDUKO AHAL DA LEHENBAILEHEN EGUN HORI ...

ORDUAN, GUZTIOK, AURRERA BEGIRATZERAKOAN, MUNDU BERRIAN ELKARTASUNA, BAKEA ETA
ASKATASUNA

AURKI DITZAGUN!

